



EBAZPENA, 2022KO AZAROAREN 14KOA, PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO ETA IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIENA, ONDORENGOAK ARAUTZEKO: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO, LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOKO, MUSIKA ETA ANTZERTIKO IRAKASLEEN KIDEGOKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN 2022-2023 IKASTURTEAN ESKAINIKO DIREN LANPOSTUAK ZEINTZUK IZANGO DIREN ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK.

1.- Irizpide bera erabiliko da lanpostu hutsak eta bigarren aldikoak zein diren zehazteko.

2.- Ikastetxe bakoitzeko lanpostuen zerrendan dauden plazen kopurua hartuko da kontuan, espezialitatearen eta hizkuntza-eskakizunaren arabera. Ondorengo kidegoetako lanpostuak baino ez dira eskainiko: bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko, lanbide-heziketako irakasle teknikoaren kidegoko eta musika eta antzertiko irakasleen kidegokoak.

Aurtengo lehiaketan ez dira eskainiko Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoari dagozkion plazak ezta arte plastikoetako eta diseinuko irakasleen kidegokoak, 2022an aurreikusitako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuetan konprometituta daudelako.

Lekualdatze-lehiaketa honetan ezin izango dira eskaini ikastetxearen lanpostuen zerrendan ageri ez diren lanpostuak, ezta lanpostu bereziak edo lan-legepeko langileentzat nahiz Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasleen kidegokoentzat gordeta daudenak ere.

Zereginen Ikaskuntza espezialitateari dagokionez, Lekualdatze-Lehiaketa estatu-mailakoa denez, soilik eskainiko dira “ZIG (*Tailerreko Maisu-Maistra Generikoa*)” espezialitate orokorreko plazak, eta ez dira eskainiko pertsona hori espezialitate jakin batekoa izatea eskatzen dutenak.

3.- Printzipioz, 2022-2023 ikasturtean dagokion espezialitateko 17 eskola-ordu dituzten plazak eskainiko dira (18 ordu Hizkuntza Eskola Ofizialetako lanpostuetan), edo hondarra 12koa edo gehiagokoa dutenak, (maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera Maisu-Maistren Kidegoaren funtzionarioek bete ditzaketen lanpostuetan, 16 ordu izango dira). Ez dira kontuan hartuko antzeko espezialitateetako orduak ezta zuzendaritza-karguengatik murriztutakoak ere, edo zentroko proiektuengatik edo beste arrazoiren batengatik murriztutakoak.

4.- Arau orokor gisa, lanpostu huts guztiak eskainiko dira, baita lanpostu hutsak hartzen dituztenek utzitakoak ere. Hala ere, lanpostu huts edo bigarren aldiko bat kendu ahal izango da, honako arrazoi hauengatik plaza desagertzeagatik:

4.1.- Aurreikuspenen arabera, ikastetxeko taldeen kopurua jaisteagatik (hizkuntza-eredua aldatzeko aukeragatik, matrikulatutako ikasle kopurua gutxitzeagatik, curriculum-aniztasuneko edota Zereginen Ikaskuntzako taldeak desagertzeagatik, heziketa-zikloak desagertzeagatik...).

4.2.- Irakaskuntzak batzeko edo integrazteko prozesuetan inplikaturako ikastetxeak (Eskola Mapa).



4.3.- Lanpostu huts edo bigarren aldiko bat kentzea gomendatzen duten beste egoera edo arrazoi batzuk. Dagokion plangintzarako lurralde-batzordeak aztertu ahal izango ditu kasu bakoitzaren arrazoiak.

5.- Aurreko atalean ezarritakoa aplikatuz, Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzek lanpostu huts eta bigarren aldirakoen proposamena egingo dute.

6.- Aurreko proposamena 2022ko azaroaren 21ean Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da. Argitaratze hori posta elektronikoz jakinaraziko zaie sindikatu guztiei eta ikastetxeetako zuzendaritzei, ikastetxeko irakasleei horren berri eman diezaieten.

2022ko azaroaren 22tik abenduaren 5era, egun biak barne, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

7.- Ikastetxe eta Plangintzako eta Plangintza eta Antolaketako zuzendariak, dagozkien zuzendaritzetako zerbitzuei kontsulta egin ondoren, aurkeztutako alegazioak aztertuko dituzte eta lanpostu hutsen eta bigarren aldikoen proposamen berri bat egingo dute. Proposamen hori sindikatuei bidaliko zaie.

Proposamen berri hori, aurkeztutako zuzenketekin batera, Ikastetxeen eta Lanbide Heziketako plangintzarako lurralde-batzordeetan eztabaidatuko da. Bileren aktak egingo dira, eta bertan, lortutako akordioak eta desadostasunak jasoko dira. Akta horiek Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariei bidaliko zaizkie, horiek behin betiko proposamena onar dezaten.

Gasteiz, 2022ko azaroaren 14a

Eugenio Jimenez Ibañez

Nicolás Sagarzazu Alzua

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN
ZUZENDARIA

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO
ZUZENDARIA